

Begoña Pedrosak bikain cum laude lortu du bere doktore tesirako

2011/09/08

Tesiaren defentsa goizeko 11:00etan izan zen Farmazia Fakultateko "Salón de Grados" aretoan. Gaia: "Pedagogic discourse and teacher strategies in two CLIL classrooms". Bi zuzendari izan ditu Begok tesia egiteko: David Lasagabaster eta Pili Sagasta. Defentsa egunean doktore hauek izan zituen epaimahaian: Do Coyle (University of Aberdeen), Juan Manuel Sierra (Euskal Herriko Unibertsitatea), Josep Maria Cots (Universitat de Lleida), Julia Barnes (Mondragon Unibertsitatea) eta Maria Jesus Safont (Universitat Jaume I).

Nahiz eta tesia hiru hizkuntzatan idatzita dagoen --euskaraz, ingelesez eta gaztelaniaz-- beronen defentsa ingelesez egin zuen Begoñak, tesi europarra izango delako, Aberdeen-go Unibertsitatean hiru hilabete eginda, Hezkuntza Departamenduan, Do Coylen taldean (Professor in Learning Innovation).

